

## Emakumeen kirola

Oztopoak eta markak gaindituz



Gurea  
Aretoko  
ikuskitzunen  
zerrenda  
barne



Derio  
Udaleko Aldizkaria



Azaleko argazkia:  
Doyaneko taekwondolariak  
(Egilea: DerioKOMunikazioa)

- 02 Editoriala
- 03 Derio sarean
- 04 Santa Klarako balkoia
- 05 Erakusketa: los Nadie
- 06 Panpina-erakusketa
- 06 Miragarriren erakustaldia
- 07 Kukukek oihala ireki du
- 08 Emakumeen gorakada taekwondon
- 09 Sari asko jaso dituzten taekwondolariak
- 10 Kirol osasungarria
- 11 TA21: Urteko plana
- 12 Txapelburuan: Olga Ororbian
- 14 Sahararako elikagaiak
- 15 Guztion zuhaitza

## Beharrezko telefonoak

DERIOKO UDALA	944 541 019
AYUNTAMIENTO	FAX 944 542 832
UDALTAINGOA - POLICIA MUNICIPAL	944 543 725
SERVICIOS SOCIALES	944 542 243
SUHILTZAILEAK - BOMBEROS	946 555 337
KULTUR BIRIKA	944 659 714
GARBIGUNE	944 034 090
HERRI IKASTETXEA - ESCUELA	944 541 246
UDALSAREAK - AVERIAS DE AGUAS	944 873 187
BEHARGINTZA TXORIERRI	944 540 370
INSTITUTUA - INSTITUTO	944 543 258
EUSKALTEGIA	944 540 062
MANKOMUNITATEA	944 540 350
KIROLDEGIA - POLIDEPORTIVO	944 540 159
GAZTELEKU	944 540 469
BIBLIOTEKA	944 540 210
NAGUSIEN ETXEA	944 540 763
AEK	944 543 967
KZ GUNEA	944 033 335
OSASUN ZENTROA - CENTRO DE SALUD	944 543 004
TAXI DERIO	944 800 909

### BEITU ALDIZKARIA

beitu@deriokoudala.net

Legezko Gordailua: BI-1377-04I

Inprimatzea: Graficas Mungia

## EDITORIALA

### EMAKUMEEN KIROLA

Emakumeen kirola goraka doa. Gaur egungo emakumeek euren inguruan eta egunerokoan kirola egiteko espazioa eta denbora bilatu eta aurkitu ohi dituzte. Instituzioak, klubak eta entrenatzaileak aspalditik dabilta emakumeen parte-hartzea bultzatzen. Derion nabari da jada taekwondon, futboleko, saskibaloian... Eta beste kirol askotan ere neskak parte hartu ez ezik gailendu ere egin dira. Eta horiekin batera baita emakume entrenatzaileak ere.


Kirola eginez zoriontasunaren hormona indartzen dela esan ohi da, eta horrek mendekotasun moduko bat sortzen duela, kiroleko oinetakoak jarri eta kalera ateratzeko beharra, hain zuzen. Eguneroko ikusten dugu jendea korrika, oinez edo erraketa zein pala bat eskuan duela. Duela pare bat hamarkada horrek guztiak gizonen esparrua zirudien, eta oso gutxi erabakitzen zuten kirola egitea; hala ere, beti egon izan ziren emakumeak, hori ere esan behar da. Gaur egun, gehiago dira, eta gutxiago gelditzen da kopurua berdintzeko; alabaina, egitekoa bada oraindik. Gorputzak merezi du, espirituak irabazi egiten du, buruak behar du eta gizarte osoak ospatu egiten du.

*Garrantzitsuena  
parte hartzea da*

# DERIO SAREAN

Informazio guztia eskura

Derio  
2.0



Udalak Derio 2.0.-n parte hartzeko dei egiten du

**G**ogoratzen al duzue Derio Zabaltzen, eta bere Kalezaindu edo iDerio aplikazioak? Bai, 2014an martxan jarritako bi aplikazio dira telefono mugikorrerako eta ordenagailurako. Lehenengoak gure udalarekin erraz eta arin komunikatzeko aukera ematen zigun. Horren bidez, herritarren parte hartzean eta gardentasunean sakontzea zen helburua, eta Kalezainduri esker, ingurua zaintzen laguntzeko aukera zegoen, gertakariak jakinaraziz edo hobekuntzak iradokiz. Bigarrenarekin udalaren zerbitzuak jasotzen genituen mugikorraren bidez: albiste garrantzitsuenak, egutegiak, sarrerren salmenta... Bada, modu orokor batean sarean presente egon dadin, Udalak martxan jarri ditu bere profilak sare sozialetan. Helburua: Udaleko arloek egunero egiten

dituzten proiektuak ezagutaraztea eta komunikazio-lerro berri bat irekitzea, udalerriko biztanleen bizitza hobetzeko eta errazteko. Facebooken, Youtuben zein Instagramen martxan dauden Udalaren profilak Derioko Udala dute izena. Zehatzago azaltzearren, Facebooken eduki luzeagoak eta informazio zabalagoa partekatuko dira, YouTubeen herriari buruzko bideo historiko eta interesgarriak, eta Instagramen udalerriko irudiak eta Udalak eta kultur-, aisialdi- eta kirol-elkarteen antolatutako ekitaldiak. Derio 2.0 sasoi betean.

*Derio gertuago... sarearen bitartez*

## SANTA KLARAKO BALKOIA

Klaratarrek euren monasteriotik begiratzen dute eta bertatik egiten dute otoiz Derioren alde

**B**alkoi baten gisara, Santa Klarako Monasterioak haran osoaren ikuspegia du, eta bertatik begiratzen diote klaratar ahizpek Deriori eta bere gaueko bitzta argizatuari, pergola batean isilpean jaten eta otoitz egiten duten bitartean. Munduaren zati txiki horrek euren horma sendoez bestaldera dagoen errealitatearen ikuspegi zabala ematen die. Asko jota dozena erdi bat moja biziko dira gaur egun Santa Klaran, eta horietako asko, gazteenak, Beloradotik (Burgos) etorri dira, zaharrenen bajak betetzera. Baina hori gustuko dute, eta guk ere bai. Zorioneko sentitzen dira bisitaren bat eta opariren bat duten bakoitzean, eta euren bizitzak bere erritmo lasaian jarraitzen du monasterioko korridoreetatik.

### Gabonak

Gabonak Derioko edonork baino debozio eta gogo biziagoz igaro dituzte klaratarrek, gorpuzta eta arima Jainkoari ematen dioten pertsonen gisara. Gela bakoitzean jaiotza bat jarri zuten, eta horien inguruan ibil ziren Jesusen jaiotza ospatzeko, otoitz eginez eta



Santa Klarak leku idilikoa du inguruan.

Gabon-kantak kantatuz. Oparirik onena Jesusentzat zein klaratarrentzat. Gainerakoa ia berdina da, ez zituzten ez euren mezak ez otoitzak aldatu, ordutegi berari jarraitu zioten gutxi gorabehera, eta urte berriari ere Deriori eta munduari begiratzeko erabiltzen duten balkoitik sartutako suziri eta argiztapenarekin ospatu zuten.

“*Klaratarren otoitzekin babestuta*”

## HISTORIA BILTZEN DUEN LIBURUA

Opari bat izan zen klaratarrekin udazkeneko bi egun pasatzea, haien eguneroko kontuak entzunez eta haien etxeko txokoak ezagutuz, baina beste opari fisiko bat ere egin ziguten: Bizkaiko kongregazioaren historia kontatzen duen “El Monasterio de Santa Clara de Abando, Begoña-Bilbao y Derio” liburua eman ziguten parte hartzaile bakoitzari. Liburuak 1366. urtetik, hots, kongregazioa sortu zenetik, Txorierrira iritsi arteko historia kontatzen du, eta monasterioaren, ahizpen edo ekitaldien argazki deigarriak biltzen ditu. Halaber, liburukia eskura dago Kultur Birikako liburutegian, bertan utzi baita derioztarren edo edozein pertsona interesdunen eskura egon dadin. Izan ere, gure tokiko historiaren parte da, biztanle, talde edo instituzio orok egunak joan eta egunak etorri egiten dugun historiarena.

# INOR EZ DIRENAK IKUSARAZTEN

Derio buru-belarri giza eskubideak aldarrikatzen



Antonio, margolaria eta poeta.

J oan den hilean, Derio handitasunez ospatu zuen Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna; abenduaren 10ean ospatzen da egun hori. Aste gogoangarria antolatu zuen Udalak, eta elkartasun-proiektu horretan parte hartu zuten Carlos Martínez, Camilo Mejía eta Antonio Soto artistek. Ekitaldiak, bisita gidatuak eta beren inguruarekin eta garaiarekin konprometitutako artisten performace paregabeak izan ziren.

Artista emankorrenak, Antonio Sotok, zenbait egunez bere egin zuen Kultur Birika. Zetorkion edonori irekia, ez zituen bisita gidatu gutxi egin Inor ez Direnei buruzko erakusketa itzelaren inguruan, "munduaren bere mapa txiki" horretan. Sotok erretratu bikain horiek gertutik ikusten laga zien bisitariei; are gehiago, baita koadroak ukitzen ere, BurkinaFaso, Ekuador, Etiopia edo Gazako

izaki horiekin lotura osatzeko. Gleanoren poema batetik atera zuen begirada sakoneko erakusketa horren izena. Inor ez ziren, eta Antoniok ahotsa eman zien, ikusarazi egin zituen. Biktimak dira, gerrenak, gaixotasun bortitzenak, etxe-kaleratzeenak; hirugarren... eta laugarren munduko immigranteak. Diotenez, "Sotoren lanetan ahulenenganako elkartasuna dago". Nahikoa izan zen hura entzutea, bizitzea eta haren sormen-prozesuaz jabetzea: salaketarako eta ezinbesteko elkartasunerako beharrezko artea.

*Inor ez Direnek  
jendearen arreta  
erakarri zuten*

## KUBATAR ARTEA, ARTISAU LURRINAREKIN

Carlita Hernandezek bere panpinak erakutsi zituen Kultur Birikan

Sekulako artista da, eta ez Kubako Artisauen Elkarteko (ASAC) kide delako soilik, haren lanek hala ziurtatzen dutelako baizik. Carlita HernándezRosell Habanan jaio zen 1946. urtean. Hilabete eta erdi eman zuen Kultur Birikan erakutsi ziren obrak egiteko, eta hilabete hasierara arte egongo dira ikusgai. Panpina-bilduma hau erakusteko, Carlitak herriko hainbat denda eta pertsonaren laguntza izan zuen, besteak beste, Electricidad Derio eta La Aguja y Dedalena, haren alaba eta herritar María Hernándezek azaldutakoaren arabera. Hain zuzen, herritarren laguntza hori eskertu nahi du alabak. Carlitarentzat ohorea



izan zen; izan ere, 20 urte eman ditu bisitan etortzen, baina orain, azkenean, hogeitaz urteren ondoren, bere artea gurekin partekatzeko aukera izan du.

## MIRAGARRIREN GIMNASIA ERAKUSTALDIA

Taldeak amaitutako urtearen erakustaldia eman zuen

Azken hogeitaz urteetan gimnastika erritmikoa azabaltzen ari da gure herrian, eta hori Miragarri Taldeari esker izan da. Ehun bat gazterekin egiten dute lan gaur egun, bai neskekin eta baita mutil batzuekin ere. Urtean hiru erakustaldi egin ohi dira: lehenengoa San Isidro inguruan, bigarrena ikasturte amaieran eta azkeneko hau, Gabonen hasieran. Egin berri duten erakustaldian taldeak hasiko den urtean egingo diren txapelketak direla eta sortzen hasi diren muntaketak erakutsi zituzten.

Taldean hainbat kategoria daude, txikienetik hasita senior kategoriaraino. Familia handi honen helburua da eskola-kirola eta federatua babestea. Horretarako,



Merkataritza-galaren ostean ere nabarmendu zen Miragarri.

norbere ahaleginari ematen diote garrantzia eta lehen etapetatik sustatzen dute kirola. Miragarri Taldeak urteak eman ditu hobetzeko gaitasunean eta sormenean sinesten duten gazteei gimnastikaz gozatzeko aukera eskaintzen.

## OIHALA IREKIZ

Kukukek antzerki-ikuskitzuna eskaini zuen Gabonetan

**K**ukuke antzerki-  
eskolak Gabonetako  
festa ahaztezin bat  
egin zuen Gurea  
Aretoan, bere bosgarren  
urteurrena zela eta.  
Hasieran Tximintxek  
sortutako proiektu  
txikia zen, baina gaur  
egun instituzio bat da  
herrian. Urte horietan,  
hogeita hamar haur  
baino gehiago pasatu  
dira euren oholtzetatik,  
eta pixkanaka hien  
famiak ere taldeko kide bihurtu dira.  
Kukukeren ibilbidean zehar, harreman  
estuak sortu dituzte, eta azkenean, familia  
txiki bat osatu dute. Kukukeren helburua  
hasiera batean ez zen antzerkiko artistak  
sortzea, baina hainbat antzerki-topaketetan  
parte hartu du, besteak beste, Bilbon,  
Literaturan eta eskualdeko Izarren Distiran.  
Sariren bat ere jaso du. Kukukek, ezaugarri  
gisa, askotariko jaialdietan parte hartzen  
du, baina batez ere euskara sustatzeari eta  
herriko kaleak mobilizatu eta alaitzeari  
begira. Gauza ugari gertatu zaizkie bost urte  
hauetan: Keinuka Mugaz Gaindi filma, Kubako  
herri txiki batekin senidetzea eta abar. Baina  
oraindik, kirioak dantzan izaten dituzte  
agertokira igotzean, baita beterranoenek ere.  
Eta hori ona da; are, beharrezkoa da, hartzen  
duten ardura handia baita. ●



*Kukukeren antzerkia goraka*



## EMAKUMEEN GORAKADA TAEKWONDON

Rosa Fraguas entrenatzaileak egunero egiten du kirol honen alde

**H**andiki egin behar da amets, porrot egiteko beldurrik gabe. Hori da taekwondoren zale amorratuak duen leloa bizitzari aurre egiteko. Izan ere, Rosa Fraguasek lau urteren ondoren berriro hartu du taekwondoko monitore-jarduera Doyan Klub beteranoan, eta helburu berri bat finkatu dio bere buruari: entrenatzen dituen neskak ezagutaraztea eta, orain arte bezala, tituluak eta dominak irabazten jarraitzea. Oso argi du kirolak, eta honek bereziki, sustatzen duen hezkuntza-lana eta balioak: “kirolari izatea gauza handia da, informazio asko ematen digu pertsona horri buruz, konpromisoa, errespetua eta sakrifizioa behar baitira kirolari izateko”.

Rosak uste du taekwondo osasuntsu dagoela Derion, gazte asko baitaude. “Lan asko eginga dago oinarrian, eta Asierrek oso ondo jakin du bere grina nola transmititu eta itsatsi. Horren emaitza zera da, kirol honek kirolariak eta euren gurasoak guztiz harrapatuta dituela”. Halaber, oso positiboa da emakumeen parte hartzeak gora egin duela. Eskola batzuetan emakumeek gehiengoa osatzen dute, horregatik hartu dute “kukis izena”. Mutilen aldagela ere eskatzen dute, handiagoa delako.

*Rosak eta Asierrek taekwondolarien belaunaldi indartsua sortu dute*



Rosa, bere “kuki” (ikasle) batzuekin.

Malgutasuna dela eta, emakumeen borrokak oso ikusgarriak eta estuak izan ohi dira. Taekwondoa asko aldatu da, ikusgarritasuna irabazi du; hori dela eta, Rosak parte hartzeko dei egiten du, batez ere neskak animatu nahi ditu taldera batu daitezten. “emakume guztiei dei egiten diegu edozein kirol egin dezaten; izan ere, kirolak zeure buruarekin gustura sentiarazten laguntzen du, indartsu sentiarazten zaitu, are gehiago, borroka-arteren bat eginez gero. Denok gara gai”.

### Helburua, titulu berrestea

Rosakhainbat sari irabazi zituen bakarka; orain, ordea, taldekako sariak irabaztea da haren asmoa. Argi du Euskadiko klubetako berretsi nahi duela, eta Espainiako Txapelketako dominaren bat ere ekarri nahiko luke. “Borroka-eskolako neskak ezagutu nituenean neure buruari ezarritako lehen helburua zera izan





zen, haiei helaraztea handiki egin behar dutela amets, porrotei zein euren ametsi beldurrik izan gabe eta, bereziki, bidez gozatu behar dutela. Hori behin eta berriz esaten diegu, eta hala jarraituko dugu”, adierazi du, guztiz sinetsita. Euskadiko txapelketetan maila handia dago, eta askotan estatuko zein Europako txapeldunei egin behar izaten diete aurre. Hala ere, “sinetsi behar dute proposatzen duten guztia lortzeko gai direla eta lortzen ez badute ez dela ezer gertatzen, bidean indartsuago bihurtzen baitira”.

Hori da Rosa Fraguasen guda:belaunaldi berriei borrokaren eta eguneroko ahaleginen balioa irakastea, ametsak egia bihurtzea lortzeko. Behetik hasi behar da goraino iristeko, beharrezkoa da emakumeen kirola etengabe babestea.

## SARI ASKO JASO DITUZTEN TAEKWONDOLARIAK

Doyanek hainbat sari berretsi ditu nazioarteko txapelketa batean

Azaroan, Galizian, Doyaneko kirolariak hainbat sari eta aipamen berezi jaso zituzten, bakarka zein taldeka. Taekwondoko Nazioarteko XVII. Irekian, Borroka eta Teknika kategorietan, klubeko 32 kirolari izan ziren. Eta lortutakoaren garrantzia nabarmentzeko, beharrezkoa da Irekiko parte hartzaileen kopurua aipatzea: 850. Adi:6 urre, 4 zilar eta 10 brontze, Derioko gimnasiarentzat. Bereziki nabarmendu nahi du emakumeen taldearen lana, bigarren postua irabazi baitzuen bi modalitateetan. Eta nabarmendutako izenen bat aipatzearen, emakumeen teknika hirukotea zoriondu nahi du:Maialen Llona, Angje Herrera eta Haizea Arranz, Euskadiko



oraingo txapeldunak. Ireki honetan lehen postua lortu zuten, Iruñekoan bezala. Txapeldunen taldea, zalantzarik gabe. Asier entrenatzaile nagusiaren hitzetan, “umiltasunez eta ilusioz lan egiten jarraitu behar dute, hazten jarraitzeko”. Esku onenetan daude.

## KIROL OSASUNGARRIA

Mankomunitateak ikastaro bat antolatu du entrenatzaileentzat



**K**iroiak garrantzi handia du gure inguruan. Betidanik jakin dugu jarduera fisikoa egitea ona dela bizitza osasungarri bat izateko. Hori dela eta, eta norabide horretan jarraitzearen, Txorierriko Mankomunitateak ikastaro bat abiarazi du futboleko entrenatzaileentzat. Ikastaroa urtarilean eta otsailean izango da.

10 ordu iraungo du, eta hainbat ataletan dago banatuta. Kirol-mediku batek honako gai hauez hitz egingo du: osasuna kirolean, kirol-higienea eta adingabeen garapen fisikoa etapa horretan. Bestalde, kirol-psikologo batek psikologiaz eta kiroleko balioek duten garrantziaz hitz egingo du. Halaber, hainbat jarduera behar bezala gauzatzeko balio positiboak transmititu behar direla nabarmenduko du. Horrez gain, nutrizionista bat ere izango da, eta elikadura-ohitura osasungarriak izateak duen garrantziaz jardungo du. Horrekin batera, nutrizio-arazo ohikoenen inguruan ere hitz egingo du.

### Irakaskuntza elebiduna

Laugarrenatala mendekotasunen prebentzioan aditua den batek

*Bost atal, adituen eskutik*



aurkeztuko du eta droga-mendekotasun eta prebentzioaren oinarriko kontzeptuen inguruan hitz egingo du. Bai eta droga-kontsumoak sor ditzakeen arriskuak eta kalteak murriztearen inguruan ere, besteak beste. Azkenik, azken atala kontsumo-gizartearen eta kirolari buruzkoa izango da, eta kontsumoaren inguruko hezkuntzako aditua bat izango da horretarako. Honako hauek landuko dira: produktuen erabilera seguru eta arduratsua, 'markismoa' eta kirol-produktuen erosketa arduratsua.

Atal bakoitzak bi ordu iraungo du, ikastaroa osatzen duten hamarrak amaitu arte, eta gatzelaniaz zein euskaraz emango dira, arratsaldeko zazpjetatik bederatzietara, EGAZ Txorierrin. Ikastaroa amaitzean diploma bat banatuko da, jardunaldi horietan parte hartu izana egiaztatzeko.

# PARTE-HARTZE HANDIAGOAREN BILA

2015a tokiko foroaren lana ebaluatzeko garaia da



Tokiko Agenda 21  
Agenda Local 21

2014an argi gehiago izan ditugu itzalak baino, Tokiko Agenda 21en herritarrek izandako parte-hartzeari dagokionez. Onarpen handia dute foroek, esaterako, Ganben edo Aldekonen eginikoeak. Era berean, oihartzun handia izan dute Eraikin Teknikoen Ikuskaritzara bideratutakoek edota ekintza bandalikoek bideratutakoek. Azken horiek, txakurren kontrako erasoaldi larriak direla eta, aurreikuspen optimistenak ere gainditu zituzten. Eskolako lanaren inguruan eginikoa ere oso egokia izan zen, eta horrek agenden arteko elkarreaginean sakontzea ekarriko du. Baina zenbaitetan pertsona gutxi bertaratu dira, nahiz eta gai garrantzitsuak izan; be steak beste, urte hasieran ireki zena, hain zuzen ere, Tokiko Korporazioen Lege berria azaltzekoa eta Zabaltzen Derioren aplikazioaren erabilera azaltzekoa. Azken hori beharbada arrakala digitalaren ondorioa da, eta azterlan xehatua egin beharko da irtenbideak bilatzeko. Horiek horrela, batez bestekoa 20 pertsonakoa izan da: ahalegindu behar dugu kopuru hori epealdi berri honetan gainditzin.

## 2015a, foro interesgarrien urtea

Foroen kontu eta gai nagusiak aukera edo premien aldaketan araberakoak badira ere, 2015erako plangintzak gai interesgarriak ekarri dizkigu horiek partekatuta eta jorrazteko. 2014. urtean interesgarriak eta eraginkorrak izan ziren herriaren gainaldeko tokiko bi foroak, eta oraingo honetan, berriz, Derioko behealdekoak edo erdigunekoak izango ditugu aztergai. Auzo bakoitzaren txanda osatu ondoren, foro orokorrean eginiko ekintzak ebaluatuko dira.

Era berean, aurrekontuak ikusgai jarriko dira, modu erraz eta praktikoan ulergarriak izan daitezten. Parte hartzeko eskubidea edota epaitegiko izapideak egin aurretik herritarren arteko gatazkak nola konpondu izango da beste foro bateko protagonistetako bat (hizlaria aditua izango da). Eta komunikazioa izango da kanalak eta zabaltzeko modu eraginkorrak sortzeko jorrazteko behar beste gaitako bat. Ez da alde batera utziko iraunkortasunaren eta ingurumenaren gaia (agenda 21en ardatz nagusia), eta eskolako agendak berriz ere emango ditu ikasturtean eginiko lanaren ondorioak. Laburbilduz, lekukotutako bidea, baina parte-hartzea behar duena, horixe da TA21en benetako arima.

Tokiko Agenda 21en topaketan plangintzak aurreko urteetako oinarri berberak ditu. Ezinbesteko kasuetan izan ezik edota parte-hartzaile gehiago egotea errazteko, oraingoz hilabete bakoitzeko azkeneko edo azken-aurreko asteazkenean egiten jarraituko dute, arratsaldeko zazpi eta erdietan, Kultur Birikan:

Urtarrilaren 28a  
Otsailaren 25a  
Martxoaren 25a  
Apirilaren 22a  
Maiatzaren 27a  
Ekainaren 24a

Uztailaren 22a  
Irailaren 23a  
Urriaren 21a  
Azaroaren 18a  
Abenduaren 16a

## EUSKALDUNA, BIZKAITARRA... DERIOZTARRA

Olga Nafarroan bizi da, baina derioztartzat du bere burua

“//Ama, ni Deriokoa naiz, e?” esaten dio Enekok harro dagoen bere ama Olgari. Derioztar horrek 15 urte baino gehiago darama Nafarroan bizitzen, eta bertan osatu du familia. Harekin batera, Eduardo, bere senarra, gipuzkoarra, eta bere bi seme-alaba, Eneko eta Nagore, nafarrak baina Derio euren bezala sentitzen dutenak: “mutikoarengatik balitz, oraintxe bertan joango ginateke hara bizitzera”. Baina gaur egun Ororbian dute bizitza. “Lanak lotzen nau hona”, baina krisiak atea jotzen badu, “maleta hartu eta nire herrira joango naiz” baieztatu du. Gainera, oso gogoan ditu aitak alde egitean esan zizkion hitzak: “ni hemen egongo naiz beti”. Bada, premisa horrekin aterata zen Olga bere etxetik, “pausoa emateko”. Hori gertatzen da “garrantzitsua dela uste duzun norbait ezagutzen duzunean”, dena uzten duzu: lana, familia, lagunak... “Arrikatu beharra nuen”. Eta Nafarroara joan zen Eduardorekin. “Nire patuari jarraitzea erabaki nuen. Ez nintzen ezeren bila ari, eta neure burua eramaten utzi nuen”. Zaila izan zen, “baina badakizu bizkaitarrok guztia lortzen dugula” eta oraingo honetan ere ezin zen



gutxiago izan. Gainera, beti izango zuen hor Derio, argazkien laborategian zuen lana eta bere izeko Josefa. Azken horrekin ikasi zuen ostalaritzaz gozatzen, “trenbide ondoko etxe txiki hartan, Josefak eta Luis Ángelek zeure etxean bezalaxe hartzen zintuzten”. Auzokide berrieekin horixe nabaritu zuen, “han irekiagoak eta nobleagoak gara”. Denborarekin, lagun nafar bikainak egin ditu. Esaten dutenez, “lagun bat egiten baduzu, bizitza osorako da”, eta baieztatu egiten dut, nahiz eta zaila den lagunak egitea, “muturrekoak baitira; zenbait gaitan hobe da ikusi, entzun eta isiltzea”. Hala ere, “saihetsezinak dira ohiko liskarrak: nafarra, gipuzkoarra, bizkaitarra eta arabarra”, esan du. Gastronomiari dagokionez, oso gustuko du onddo beltza eta Ultzamako gatzatua, eta goraipamenak besterik ez du Nafarroako barazkien inguruan. Hala ere, hori ezin da inola ere konparatu “lñakiren porru-odolostearekin edota txuletoi edo arrain goxo batekin”, hor irabazi egiten dugu.


### Derio eboluzionatzen

2007az gerotik Ororbia herri txikian bizi da, baina lehenago Iruñeko Txantrea auzotik eta Berriozarretik pasatu zen. Bertan ikasi zuen euskara maitatzen, eta ez zen inoiz nekatu —ezta nekatzen ere— bizkaitarrak defendatzeaz eta bere herria Derio dela harro esateaz. Olgak ez ditu ahaztu bere auzoa, Anboto plaza (ezaguna da beste izen honegatik: Bodonos), San Miguelekoa, joko-aretoa, udako gauak, seminarioan eguzkia



hartzea, goizaldeko dantzaldiak, bigantxak eta guzti; izan ere, "jaiak oso bereziak ziren, herrikoak eta herriarentzat". Lagunen falta sumatzen du, baina "urteak igaro arren, beti daude hor". Koltza plazara jo du ("hiru taberna dituena, Boris taberna aurrean dela; han lan egin nuen nik, eta hantxe ikusi nituen gaur egun oraindik batera dirauten bikoteak osatzen"). Oroitzapenek eta herriminak hartzen dute Olga: "Usain berezia hartzea ohetik jaiki, leihoa ireki eta mendia ikustean, edo lasaitasuna entzutea, nahiz eta hegazkin bat igaro gain-gainetik". Pena ematen diote gaur egun lehengo bizitasuna galdu duten eremuek. Hala ere, Olgaren arazo nagusia da gero eta denbora

### Ororbia (Nafarroa)



"Nafarroari itsasoa baino ez zaio falta". Olgak kolore urdinaren falta sumatzen du biziki maite duen paisaia horretan: "Harrigarria da, kolore berde-berdea hemen, horia han...". Kolore-nahaste hori ikusteko, honako hauek gomendatu

dizkigu: Erronkari, Estellerria, Urbasa, Done Mikel Aralarkoa... Gustukoena, hori bai, Urederrako sorburua du. Iruñerriko Ororbia txikitik, Nafarroan zehar ibil daiteke, Iruñetik, Sakanatik edota Erriberatik, eta iparralde osoan zehar

**Izen-abizenak:** Olga Parejo Pérez

**Adina:** 43 urte

**Alde egin zuen urtea:** 1998

**Egungo bizitokia:** Ororbia (Nafarroa)

**Lanbidea:** automobil-enpresa bateko langilea  
Olga Nafarroako lurretara joan zen maitemindu zen gipuzkoar batekin. Gaur egun familia osatu du Ororbian, eta familiako kide txikien ere derioztartzat dute beren burua; harro dago horretaz Olga. Han, euskararekin zerikusia duen edozertan inplikatzen eta komunitatean bizitzen ikasi du. Eguzero ibiltzen da pasieran herrian, "jakiteko ea jarduera berririk dagoen edo egiten ari garenak ondo funtzionatzen duen". Izan ere, Olga oso lagunartekoa da. Nafar askok bezala, automobilgintzako multinazional batean lan egiten du, lanaldika, eta, horregatik, aste batetik bestera aldatu egiten zaio bizimodua, seme-alabei eta herriari emandako bizimodua; erretiroa han hartu eta Deriora bueltatzeko asmoa du, itsasoa gertu behar baitu.

gehiago ematen duela bueltatu gabe, eta, "hori dela eta, pixkanaka oroitzapena galtzen ari naiz". Ez dadila arduratu, bere aitak dioen bezala, hemen egongo baikara beti.

ere bai. Ororbiatik, beraz, Artetako sorburua eta Goñi ibarra bisita daitezke, baita Etxauriko Haitzak ere, ezagunak eskalatzailen artean. Abuztuan dituzte zaindariaren jaiak, hirugarren asteburuan, eta gozatu egiten dute "etxez etxe kopak hartzen, herri bazkarietan eta berbenetan". Ultzama ingurua gomendatu du egun-pasa eta bazkaltzera joateko, eta ondo beltza topatzen

badugu, hobe. Kultur ibilbideetarako, berriz, Artaxoa eta Olite herriak eta Arrada eta Garesko harrisia aipatu ditu. Azkenik, inauterietarako, Lantz eta Altsasu, "eder-ederrak" baitira, eta Olgari berezi egiten zaion hots batek hartzen du inguru hori: "zanpantzarren hotsa, harrigarriak dira". Harrigarria, era berean, bisitatzea gonbidatu gaituen Nafarroako paisaia.

## SAHARARAKO ELIKAGAIAK

Hilabete honen amaieran amaituko da bilketa

//Sahararen aldeko euskal karabana: elikatu itxaropena" elikagaiak biltzeko kanpaina urtarrilaren 31n amaituko da.

Euskadin, hegalaburrak eta sardinak oliotan, pasta, arroza, azukrea, lekaleak eta konpresak dira jaso bildu behar izan dituzten produktuak, ekimen horretan herriko eskarmentu handiko arduradun José Ramón Elorriagak zehaztu duen bezala. Lankidetzaz horri esker, Argelia eta Mauritania lurraldeetako errefuxiatuak elikatu ahal izango dira.

2006. urteaz geroztik, urte hartan hasi baitziren derioztarrak ekintza horretan parte hartzen, lankidetzaz horrek ez du etenik izan. José Ramón esker oneko eta itxaropentsu agertu da. "Derioztarrek oso modu solidarioan jokatu zuten elikagaiak biltzeko aurreko kanpaina, eta espero dugu jarrera horri eustea eta behar duten laguntza eman ahal izatea" adierazi du. Izan ere, herritar bakoitzak egiten duen ekarpenak errefuxiatuen kanpamenduko 160.000 saharar baino gehiago elikatzeke balioko du. Urtero bezala, bilketa udalerriko supermerkatuetan egiten da (Eroski, garai bateko Erkoreka, BM eta DIA), urtarrilean.

### Karabana solidarioa

Elikagaiak Sahararen aldeko Euskadiko Elkartek erositako bigarren eskuko



kamioietan iritsiko dira. Horiak, ondoren, kanpamentuen esku geratuko dira, Elorriagak kontatzen duenaren arabera. Horiakin batera, hainbat erakundek (besteak beste, Bizkaibuseko autobusak, Ertzaintzaren patruilak edo furgonetak) dohaintzan emandako beste ibilgailu batzuek ere bidaiatuko dute, José Ramónek kontatu duenaren arabera. Era berean, ortuak eta negutegiak instalatzeko materiala eta eskulana ere emango da. Karabana solidario hau Euskaditik aterako da otsailaren hasieran. Diru-laguntzak Laboral Kutxako kontu zenbaki honetan egin ahal izango dira:

3035-0080-94-0800054177. Argibide gehiago jasotzeko, deitu hona: 619 029 748

Sahararako elikagaien bilketa herriko supermerkatuetan egingo da, eta urtarrilaren 31n amaituko da. Bildutako produktuak otsailean igorriko dira Sahararako errefuxiatuen kanpamentuetara karabana solidarioan, eta horrekin batera Euskadiko erakundeek emandako hainbat ibilgailu ere bai.

# IRAGAN GABONETAKO ZUHAITZA

Oroitzapenean geldituko dira ekitaldiak eta momentu onak

**K**ultur Birikak zuhaitz erraldoia jarri zuen, eta merkatariek Gure Señeak elkarteari elkartasuna adierazteko baliabide gisa erabili zuten. Zuhaitz hori baino handiagoa izan da, ordea, elkarte guztien laguntzaz osaturikoa. Inork ezin du ukatu talde guztiek ekitaldirik onena antolatzeko eginiko ahalegina: gonbidatu gogoangarriak, ekitaldi

jendetsuak, hotsandiko guztientzako ospakizunak eta urteko lanaren erakustaldiak... Horietan guztietan, asmo, ahalegin eta borondate onena erakutsi dute. Talde bakoitzak jarri du bere alea zuhaitz paregabe hori osatzeko, gure oroitzapenean eta album partikularrean landatuta geratu dena. ●

